MOTZEAN

Bertan behera utzi dituzte Sarako eta Baionako herriko etxeek euskarari egindako aitortzak. Frantziako Konstituzioaren aurka egiten duela argudiatuta, Paueko Auzitegiak Jean Marie Girier Pirinio Atlantikoetako prefet ohiaren eskaerari men egin dio.

Marieniako lurrak hilabeteren buruan husteko agindu du auzitegiak. ELB sindikatuak eta Lurzaindiak jarritako abereak atera beharko dituzte lurretatik. "Negoziatzeko oportunitate bat bezala ikusten dugu", erantzun dute aginduaren aurrean".

Lan Harremanen Kontseiluak ez du itzulpen zerbitzurik jarri Bizkaiko metalgintza mahaiko bileran. ELA sindikatuak jarri behar izan ditu itzultzaile bat eta baliabide teknikoak, erdaldun elebakarrek sindikatuko ordezkariei ulertzeko. Patronalak, ordea, ez du zerbitzu hori erabili. ELAko ordezkariak euskara hutsean aritu dira.

Lehortearen eraginari aurre egiteko, Eusko Jaurlaritzak eta abeltzainek animalientzako bazka batera erosteko bideak lantzea adostu zuten abuztuan. Orain, baina, Jaurlaritzak iragarri du ez dutela halakorik egingo eta "frustragarria" eta "iraingarria" dela salatu dute ENBA eta EHNE sindikatuek.

Zailtasunak dituzte Nafarroako landa eremuetan familia medikuen plazak betetzeko. Zarrakaztelu, Azkoien eta Erriberri dira egoerak bereziki eragiten dien herrietako batzuk.

EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA
www.adurlarrea.com